

Baleike Udal Taldeak ondorengo proposamena egiten du eztabaida eta onarpenerako dagokion Berdintasun sail eta batzordean.

ZIOAK

Udal aurrekontuak ez dira neutralak generoari dagokionez. Baleike udal taldeak proposamen hau izapidetzen du 2017 udal aurrekontuetako genero eraginaren azterketa eta txostena eskatzeko. Helburua, udal politiken eragina hausnartzea da ezberdintasunak azaleratu eta haiek konpontzeko erramintak garatzeko.

Genero eraginaren buruzko ebaluaketak, Otsailaren 18ko 2005/4 Emakume eta Gizonezkoen arteko Berdintasun Legetik determinaturik daude, ezberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko genero eraginaren aurre-ebaluaketa Ildoetan zehaztuak 2012 Abuztuaren 21ko Gobernu Kontseiluan.

Bilbo edo Donostiko udalek adibidez, gaur egun genero eraginari lotutako txostenak argitaratzen dituzte udal aurrekontuen lanketan. Gainera, ezinbesteko eta oinarrizko pausoa dela uste dugu gobernuak berdintasun sailean duen xedea genero mainstreaming-a ezartzerako orduan (genero ikuspegia gobernu politiken diseinu, lanketa eta ezarketan txertatzea).

Eskaera hau izapetzen dugu proposamena dagokion batzorde informatzailean lantzeko eta gobernuaren idatzizko eta motibaturiko erantzuna itzarongo dugu.

PROPOSAMENA

* 2017ko udal aurrekontuen gaineko genero eragin txosten sakona lantzea. Genero ikuspegiko txosten honek izango dituen helburu eta motibazioak hauek dira:

- 1) Aurrekontuek emakume eta gizonen gainean duten eragina ezagutzea, bestelako hainbat diskriminazio ardatz kontuan izanik (adina, migrazio estatusa, errenta maila...)
- 2) Berdintasuna sustatzeko erraminta izatea.

* Txostenak izan behar dituen oinarrizko adierazleak:

- Sexu bidez banatutako gastu eta dirusarreraren datu estadistikoak
- Genero eraginaren ebaluazioa
- Ordainik gabeko zainketa lanen ekonomiari buruzko datuak eta denbora erabileraren gaineko datuak
- Udal politiken eragina sexu bidez banatuta